

# Mondragon Unibertsitateko ekodiseinuko lanen erakusketa

2007/07/13

## UKITUKO EZ DUZUN URARI EZ UTZI JOATEN

*Noizbait, inguruan ditugun produktu guztiak oso modu zehatzean produzituko dira: ekodiseinuaren bidez. Tresna horrekin edozer diseinatzeko, ingurumen-gaiei erreparatzen zaie objektuaren bizitza osoan zehar. Ingurumen-inpaktua saihestu edo txikitzeaz gain, prebentzioaren filosofia erabiltzen du. Baina hori egia bihurtu bitartean, Arrasateko Eskola Politeknikoan Industri Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari diren gazteek aurrera egiten jarraitzen dute euren lan eta proiektuetan. Oraingoan, originaltasuna eta berrikuntza, batetik, eta aurrezteko formula berriak, bestetik, uztartzen dituzten hamar azterlan erakutsiko dituzte, guztiak ere uraren, gure planetan gero eta urriagoa izango den baliabide naturalaren, inguruan.*

Emaus Fundazio Sozialaren EkoCenter egoitza aukeratu dute, Mondragon Unibertsitateko Industrializazioa ikastaroan zehar ikasleek egindako proiektuak ezagutarazi eta erakusteko. Uztailaren 12tik 19ra bitartean egongo dira ikusgai lanak: goizetan, 10:00etatik 13:00era astelehenetik larunbatera eta, arratsaldetan, 16:00etatik 19:30era astelehenetik ostiralera.

Emausek Belartzan dituen instalazioetara joaten direnek **ANTHEA LOREA** proiektua ikusmiratu ahal izango dute. Landare artifizial moduko honek zimel itxura hartzen du, etxean ura xahutzen badugu. Hortaz, uraren zentzuzko kontsumoaren garrantziaz ohartarazten gaituen bitartekoa da. Bestalde, **HORTZETAKO ESKUILA ELEKTRIKO** oso *temoso* bat ere aurkitu ahal izango dute (iturria itxita dugunean bakarrik ibiliko da), eta **WALKER** deritzona, makila soil bat baino askoz ere gehiago dena.

Agian, **RBC** (Razor Blade Cleaner) hitza oso ezaguna eta erabilia izango da hemendik gutxira; baina, oraingoan, azaldu egin beharko dugu zer den: erreminten hortzak garbitzeko makina txiki bat da, arina eta ergonomikoa izateaz gain, erabiltzen den bakoitzean ur-kontsumoaren % 99 aurrezteko aukera ematen duena, eraginkortasunik galdu gabe.

Akaso, denbora gutxi barru, etxera heldu eta **KONKETA TOLESGARRIAN** garbituko ditugu eskuak; ura aurrezteaz gainera, etxeetan gero eta nabarmenagoa den beste arazo bati ere egiten dio aurre, toki-faltari alegia. **H2 CONVERTER**a ere txertatuta izango dugu, behar bada, sukalde guztietan; etxetresna elektriko berritzaile horrek ura aurreztu, hondakin-urak tratatu eta etxean erabiltzeko hidrogenoa eta ozonoa sortzen ditu. Duxan, garbitzeko modu berria erakutsiko digun **BELAKIA** erabiliko dugu; horren bidez, ura eta xaboia batera ateratzen dira, eta, ondorioz, ura aurrezten da. Eta lasaitzeko aukera dugunean, ur-tanta bat ere galdu gabe, **SENSES SOFAN** jarri ahal izango gara; uraren antzeko sentimen-propietateak dituen, uretan zabuka ari den koltxoneta batean zaudela pentsatuko duzu.

Aurtengo uda negutar honetan, eguzkia irten orduko hondartzara joaten gara denok arrapaladan, eta horrek pilaketak eragiten ditu, jakina. Ez litzateke halakorik gertatuko **PEDALO KEYKI**arekin. Pentsatu, adibidez, Kontxako badia osoa bitxilore-formako plataformaz bete; lore bakoitzaren petaloetan eguzkia hartzeko tokiak egongo lirateke eta erdiko biribilgunean bainua hartzeko esparrua. Euria egiten badu ere ez dago arazorik; **PERGOLA** berriarekin, bide publikoan bertan babestuta egongo gara eta ez gara blai-blai jarriko.

*Argibide gehiago hemen:*

**Mondragon Unibertsitatea**

**Nagore Lauroba: 656 76 55 03**



Mondragon Unibertsitateko ekodiseinuko lanen erakusketa